

# 8/23

## *irizpena*

Komunitate- eta etxe-konpostajerako instalazio eta jardueren araubide juridikoa eta kondizio teknikoak ezartzen dituen

**Dekretu-proiektuari buruzkoa**

**Bilbon, 2023ko maiatzaren 29a**



**CES**  
**EGAB**

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Araoetarako Batzordea

Irizpena 8/23

---

## I.- AURREKARIAK

---

2023ko maiatzaren 10ean, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren idazki bat sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean, komunitate- eta etxe-konpostajerako instalazio eta jardueren araubide juridikoa eta kondizio teknikoak ezartzen dituen Dekretu-proiektuari buruzko txostena eskatzeko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

*Arauaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan biohondakinak komunitateko eta etxeko konpostajearen bidez balorizatzeko instalazio eta jarduera publiko eta pribatuen araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzea, ingurumena eta pertsonen osasuna babesteko.*

*Era berean, dekretu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko komunitateko eta etxeko konpostaje-instalazio eta -jardueretatik datorren konpostaren erabilera posibleak arautzea.*

Berehala bidali zitzaizen dokumentuaren kopia Kontseiluaren Osoko Bilkurako kide guztiei, beren proposamenak eta iritzia bidal zitzaizkien eta dagokion Lan Batzordeari helaraz ziezazkieten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera. 2023ko maiatzaren 26an Ekonomia Garapenerako Batzordea bildu zen, eta bertan hartutako erabakiak oinarri hartuta, honako Irizpen-proiektua egin zen Batzordeak maiatzaren 29an egindako Osoko Bilkuran aurkezteko. Aho batez onetsi zuten

## II.- EDUKIA

---

Dekretu-proiektuak hitzaurrea, 19 artikulua, xedapen iragankor bakarra, bi azken xedapen eta 5 eranskin ditu.

**1. artikulua** arauaren xedea finkatzen du.

**2. artikulua** komunitateko eta etxeko konpostaje-instalazioen eta -jardueren administrazio-araubidea jasotzen du.

**3. artikulua** hainbat definizio ageri dira. Zehazki, biohondakintzat, konpostatzat, konpostajetzat, komunitateko konpostajetzat, etxeko konpostajetzat, egituratzailatzat, sortzaile handitzat, komunitateko konpostaje-instalaziotzat, lotetzat, komunitateko konpostaje-instalazioaren titulartzat, komunitateko konpostaje-instalazioaren arduradun teknikotzat, komunitateko konpostaje-instalazioen eta -jardueren erabiltzailatzat eta kaudimen teknikotzat hartzen dena.

**4. artikulua** komunitateko konpostaje-instalazioen kokapenari buruzkoa da.

**5. artikulua** komunitateko konpostaje-instalazioek bete beharreko baldintzak arautzen ditu.

**6. artikulua**, komunitateko konpostaje-instalazioetan zein hondakin onartuko diren arautzen da.

**7. artikulua** komunitateko konpostaje-prozesuaren kontrola zehazten du, **8. artikulua** komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueretatik datorren konpostaren kontrol analitikoa, eta **9. artikulua** komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueretatik datorren konposta biltegitzeari buruzkoa.

**10. artikulua** komunitateko konpostaje-instalazioen titularraren den pertsona fisiko edo juridikoaren betebeharrak ezartzen dira; **11.ean**, komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueren arduradun teknikoarenak; eta **12.ean**, komunitateko konpostajearen titularraren den toki-erakundearenak.

**13. artikulua** komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueretatik datorren konpostaren erabilerak arautzen ditu.

**14. artikulua** komunitateko konpostaje-instalazioen eta -jardueren erabiltzaileen prestakuntza eta sentsibilizazioa ezartzen du.

**16. artikulua**, etxeko konpostaje-jarduera egiten duten pertsona fisiko edo juridikoen betebeharrak jasotzen dira, eta **17. artikulua**, berriz, toki-erakundeak, etxeko konpostajeari dagokionez.

**18. artikulua** etxeko edo komunitateko konpostajearekin pareka daitezkeen jarduerak arautzen ditu.

**19. artikulua** zehapen-araubidea ezartzen da.

**XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA** lehendik dauden instalazioak egokitzeari buruzkoa da.

**AZKEN XEDAPENETATIK LEHENA** erregelamendu bidezko garapenari buruzkoa da.

Ahalmena ematen dio ingurumenaren arloko eskumenak dituen sailari dekretu honetan ezarritakoa garatzeko behar diren xedapen eta jarraibide tekniko guztiak eman ditzan.

**AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA** indarrean sartzeari buruzkoa da.

### **III.- GOGOETA OROKORRAK**

---

Etxeko eta komunitateko konpostajea gero eta ohikoagoak dira, eta ingurumen-onurez gain, herritarren parte-hartzea, ingurumen-hezkuntza eta komunitate-zentzua sustatzen dituzte. Tartean dauden pertsonak hondakin organikoak birziklatzearen garrantziaz, baliabide naturalen kudeaketa iraunkorraren garrantziaz eta helburu komun bat lortzeko elkarrekin lan egiteaz ikas dezakete. Hala ere, erronka eta gogoeta garrantzitsuak ere baditu. Antolaketa eraginkorra, azpiegitura egokia, gaikuntza eta komunitateko kideen parte-hartzea behar ditu. Gainera, funtsezkoa da konpostajea behar bezala egiten dela bermatzea, usain desatseginak edo izurrien hedapena saihesteko.

Gure irizpenaren pean jarri da *“Komunitate- eta etxe-konpostajerako instalazio eta jardueren araubide juridikoa eta kondizio teknikoak ezartzen dituen Dekretu-proiektua”*.

Bat gatoz arauaren xedearekin; izan ere, EBren helburu estrategikoekin, estatuko helburuekin eta EAEko 2030erako Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planarekin bat etorritik, biohondakinaren gaikako bilketaren aurrerapena atzeraezinezko premia eta aukera da lotutako ingurumen-adierazleak hobetzeko eta lotutako balio-kateak indartzeko. Kontsultatu diguten dekretuak aukera ematen du esparru tekniko elkartua hobetzeko, konpostaje-eremuen kudeaketa eta horien erregistroa optimizatzeko, sortutako konpostaren erabilera-esparrua hobetzeko eta parte-hartze soziala kantitatean eta fidagarritasunean bultzatzeko neurriak ezartzeko, faktore hori funtsezkoa baita prozesuaren eta lortutako materialen egokitasuna bermatze aldera.

Ongarriari buruzko Europako araudiaren helburuetako bat material birziklatuen erabilera sustatzea da, ekonomia zirkularra lortzeko. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/851 (EB) Zuzentarauak, 2018ko maiatzaren 30ekoak, hondakinei buruzko 2008/98/EE Zuzentaraua aldatzen duenak, eta, ondoren, ekonomia zirkularerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen transposizio-legeak, etxeko eta komunitateko konpostajea hondakinaren jatorrian birziklatzeko eragiketatzat jotzen dute. Era berean, estatu kideen betebeharrak da biohondakinak

jatorrian bereizi eta birziklatzea bermatzea, edo hondakin horiek bereizita biltzea, beste hondakin batzuekin nahastu gabe, 2023ko abenduaren 31 baino lehen. Era berean, estatu kideei eskatzen die neurriak har ditzatela etxeko konpostajea eta biohondakinen birziklapena sustatzeko, konpostajea eta digestio anaerobioa barne, ingurumenaren babes-maila handia eta kalitate handiko emaitza ziurtatzeko.

Arauk bat egiten du 2030eko Euskadiko Ekonomia Zirkularreko Estrategiarekin eta 2030eko Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planarekin, bai eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritakoarekin ere.

Era berean, dekretu-proiektuak erregelamendu bidez garatzen ditu biohondakinen etxeko konpostajeari eta konpostaje komunitarioari buruzko alderdiak, Estatuaren hondakinen arloko oinarrizko legerian ezarritakoak (7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Ekonomia Zirkularreko Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzkoa).

## IV.- GOGOETA BEREZIAK

---

### Ataria

Konposta egiteko, aurretiazko eta beharrezko urrats bat egin behar da: materia organikoa gaika biltzea. Gure ustez, nahiz eta etxeko edo komunitateko instalazioei buruz hitz egin, beharrezkoa da hitzaurrean, behintzat, administrazio publikoek gaikako bilketa sustatzeko konpromisoa hartzea, are gehiago kontuan hartzen bada herritarrak konpromiso eta betebeharrak hartzea eskatzen ari direla edo, gutxienez, bultzatzen ari direla.

Hori dela eta, hitzaurrean paragrafo bat eranstea iradokitzen dugu, gaikako bilketaren tokiko mailako ezarpena sustatzeko, honako neurri hauekin:

- herritarren sentsibilizazioa areagotzea, hainbat eragileren inplikazioarekin,
- baliabide ekonomikoak eta prestakuntzakoak, ikerkuntzakoak, hezkuntzakoak,
- jardunbide egokien gida bat egitea aplikazioa errazteko,
- komunitateko konpostajearen erabiltzaileei zaborraren kanona murriztea, edo beste onura batzuk.

### 2. artikulua. EAEko komunitateko eta etxeko konpostaje-instalazioen eta -jardueren administrazio-araubidea.

- Komunitateko konpostajearen eta etxeko konpostajearen arteko aldea gehiago garatzea iradokitzen dugu, etxeko konpostajea eta komunitateko konpostajea ez direla berdin hartu behar argi uzteko. Bereizketa horren zentzuak ez du ekarri behar konplexutasun handiagorik herritarren artean jarduera hori bultzatzeko; aitzitik, bereizi egin behar da, biztanle gutxiko eta sakabanatutako eremuetan hondakinen kudeaketaren kostuak merkatzea ahalbidetzeko.
- 1. puntuan, nekazaritzako hondakinei buruzko beste arauen bat planteatzen ari den ala ez argitzea iradokitzen dugu, definizioan zeharka aipatzen baitira.

*Dekretu honetako xedapenak betez biohondakinen balorizazioa komunitateko konpostajearen eta etxeko konpostajearen bidez egiten duten pertsona fisiko edo juridikoek ez dute bete beharko Ekonomia Zirkularreko Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 33.*

*artikuluaren aurreikusitako baimena, lege horren 34. artikulua aplikatuz.*

Gure ustez, araua Ministerioaren Aginduaren proiektuarekin koordinatzea komeni da. Agindu horren bidez, etxeko, komunitateko eta nekazaritzako konpostajearen bidez hondakin biodegradagarrien tratamendua baimentzetik salbuesteko arau orokorrak ezartzen dira. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak onartzeko fasean.

### **3. artikulua. Definizioak.**

b) atalean, material bioegonkortua ez dela konpostatzen hartuko hautematea oso beharrezkoa da. Hala ere, lege-testu bat izan arren, bertan zehaztapen teknikoago batzuk jasotzen direnez, egokitzat jotzen dugu zergatiari buruzko azalpen labur bat sartzea. Kontua da material bioegonkortua hondakin nahasietatik datorrela, eta konposaketan partikula ez-organikoak daudela; horregatik, ez da konpostatzen hartu behar.

### **4. artikulua. Komunitateko konpostaje-instalazioen kokapena**

2.a) puntuan argitu beharko litzateke bideragarritasun-azterketa eta kokapen-alternatiben azterketa jarduera hasi aurretik EAeko ingurumen-organoari jakinarazi aurretik edo ondoren egin behar den, 2.2 artikuluan betebeharrak gisa aipatzen baita.

### **7., 8. eta 10. artikulua. Bermatzailearen figuraren erantzukizun-araubideari buruzko baterako proposamena**

10. artikuluan komunitateko konpostaje-instalazioen titularra den pertsona fisiko edo juridikoaren betebeharrak ezartzen dira, eta c) puntuan aipatzen da instalazioak arduradun tekniko bat duela ziurtatzeko betebeharra, dekretu honen 7. eta 8. artikulua betetzen direla bermatzeko.

Lege-testuaren artikuluetan ezartzen den bermatzailearen erantzukizunari kalterik egin gabe, komenigarritzat jotzen dugu adieraztea lege hori indarrean dagoen beste araudi baten babesean bermatzailearentzat sor daitezkeen erantzukizunei kalterik egin gabekoa dela.

### **12.2.c) artikulua, 14.2 artikulua eta 16.1.b) artikulua eta 11. artikulua**

12.2.c), 14.2 eta 16.1.b) artikuluetan<sup>1</sup>, besteak beste, erabiltzaileen prestakuntza<sup>2</sup> eta herritarren arteko sentsibilizazioa jorratzen dira.

Kontuan hartuta konpostaje-instalazioen eta -jardueren arduradun teknikoaren funtzioak eta

<sup>1</sup>12.2. Komunitateko konpostaje-instalazioak kokatuta dauden lurralde-eremuko toki-erakundeek honako hauek bermatu beharko dituzte: c) Erabiltzaileen prestakuntza egokia eta 14. artikulua araberako komunitateko konpostaje-instalazioen funtzionamendu egokirako beharrezkoa den gizarte-aktibazioa.

14.2. Komunitateko konpostaje-eremuak sustatzen dituzten toki-erakundeek herritarrak sentsibilizatu beharko dituzte, komunitateko konpostaje-eremuetako biohondakinen fluxu nahikoa maximizatzeko. Horretarako, herritarren artean prestakuntza- eta dinamizazio-jarduerak egingo dituzte, komunitateko konpostaje-eremuen parte-hartzea eta erabilera sustatu eta leialtzeko, zonalde bakoitzari lotutako auzotarrek aldiro-aldiro ekintza nahikoak eginez eremu horiek behar bezala funtziona dezaten.

16.1. Etxeko konpostaje-jarduerak egiten dituzten pertsonak honako betebeharrak bete beharko dituzte: b) Etxeko konpostajea tokiko erakundeek ezarritako etxeko konpostaje-jardueren esparruan egiten bada, erabiltzaileak parte hartu beharko du erakunde horiek etxeko konpostaje-prozesuarekin lotuta egiten dituzten prestakuntza- eta dinamizazio-jardueretan..

<sup>2</sup> l) Komunitateko konpostaje-instalazioen eta -jardueren erabiltzaileak: pertsona fisikoak, hondakinen ekoizleak, beren hondakin biodegradagarriak dekretu honetan definitutako komunitateko konpostaje-instalazioetan uzten dituztenak.

betebeharrak, 11. artikuluan jasotakoak, gure ustez, titularrei<sup>3</sup> eta arduradun teknikoei<sup>4</sup> beharrezko prestakuntza eskatu beharko zaie agindutako lana egiteko edo, hala badagokio, lan hori errazteko.

#### **17. artikulua. Toki-erakundeek etxeko konpostajeari dagokionez dituzten betebeharrak**

Gure ustez, betebeharrak horiek konpostaren kalitatea ikuskatzeko programa batekin osatu behar dira, eta, hala badagokio, EAEk beteko du programa hori, udalen laguntzaz.

## **V.- ONDORIOA**

---

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz, egokia da *“Komunitate- eta etxe-konpostajerako instalazio eta jardueren araubide juridikoa eta kondizio teknikoak ezartzen dituen Dekretu-proiektua”* izapidetzea, kontsulta-organo honek egindako oharra aintzat hartuz.

Bilbon, 2023ko maiatzaren 29a

O.E. Presidentea

Idazkari nagusia

Emilia M. Málaga Pérez

Olatz Jaureguizar Ugarte

---

<sup>3</sup> j) Komunitateko konpostaje-instalazioaren titularra: 10. artikuluan adierazitako azpiegiturak eraiki, mantendu eta kudeatzearen ondoriozko erantzukizunak bere gain hartzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa. Instalazioen titularrak udalerriak, eskualdeak, kuadrillak, udalerrri-mankomunitateak, jabe-erkidagoak, ikastetxeak edo sortzaile handi gisa sailkatutako erakunde edo enpresak izan daitezke.

<sup>4</sup> k) Komunitateko konpostaje-instalazioaren arduradun teknikoak: instalazio bakoitzean 7. eta 8. artikuluko eta 11. artikuluko betebeharrak betetzen direla bermatzeko ardura duen pertsona fisiko edo juridikoa.